

Gaur egun, premia bereziak dituzten pertsona askok zailtasunak izaten dituzte komunikazioan eta jarrera-erosotasunean, eta horrek autonomia eta eguneroko parte-hartzea mugatzen ditu. Errealitate horretatik abiatuta sortu zen gure enpresa: DentAll. Bertan, egokitutako eserleku ergonomiko baten diseinua proposatzen duen proiektu bat aurkezten dugu, material espezifikoekin eta tablet batekin batera, komunikazio-tresna gisa.

Helburu nagusia da erosotasuna hobetuko duen, komunikazioa erraztuko duen eta premia bereziak dituzten pertsonen inklusioa erraztuko duen irtenbide praktiko eta irisgarri bat eskaintzea, pertsona eta haren benetako beharrak ardatz izango dituen diseinu baten alde eginez.